



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko apirilaren 23a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide egokia eman diezaien seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko laguntza ukatu zaien familia guztiei. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoen Negoziazio Mahai Orokorreko sindikatuekin, sektore publikoko langileei ordaintze aldera 2012ko abenduan beren nominetatik kendutako lansari-zatia. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alde batera utz ditzan Esako urtegia handitze-ko lanak, egungo urtegian segurtasuna mantentzeko neurriak har ditzan, informazio gardentasunez joka dezan ukituriko herritar eta udalekin eta larrialdi plan bat diseina dezan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da instalazio publikoetan egin daitezten haurdunaldiaren borondatezko eteteak, legean eta Kontuen Ganberaren gomendioetan esaten den moduan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari eskatzeko beren eskumenak erabil ditzatela dikeen mantentze- eta konpontze-lanei dagokienez, azpiegitura publikoak diren aldetik. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskadi eta Errioxako gobernuekin negozioa dezan Unescori Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera aurkeztutako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko beste espazio batzuk. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa, arantza bifidoa duten pertsonen errolda sor dezan eta 2006tik dagoen kontusaila mantentzeko. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, premiatzen da III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzera. Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuz García jaunak aurkeztu dute (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu Bigarren Errepublikak funtsezko aldaketa ekarri zuela Espainiako bizitza politikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Tuteratik Tarazonara doan N-121-C errepidearen eta Murchanterako sarbide NA-6840 errepidearen arteko lotunea egiteko aurreikusitako kronogramari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egin (25. or.).
- Galdera, Altsasu eta Sakanako Mankomunitatea eta 16. ustiapen-batzarraren hegoaldea urez hornitzen dituen uraren gaineko eskubideak defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, M.^a Carmen Ochoa Canela andreak egin (26. or.).
- Galdera, jakitekoa zein den Gizarte Politiketako Departamentuaren jarrera Ezgaitasunak dituzten Pertsonen “Erronkari Ibarra” Zentroaren kudeaketari dagokionez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren ondorioz. María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (27. or.).
- Galdera, Espainiako Errege Akademiaren Fundazioarekin hartutako konpromiso ofizialei eta eginiko zorra ordaintzeari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (28. or.).
- Galdera, enpresa publikoek beren langileria gastua % 5 murrizteko betebeharrari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (28. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroan 39 enpresa publiko ote zeuden eta gaur egun horietatik 13 bakarrik gertatzen diren, eta zeintzuk ziren enpresa horien 39 kudeatzaileen eginkizunak, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (29. or.).
- Galdera, “CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra”ko kudeatzailetzari enplegu-erregulazioko espedientearen ondotik dagokion lansari-murrizketa proportzionalari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (30. or.).
- Galdera, enpresa publikoek Nafarroan duten etorkizunari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (30. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Abuztuaren 13/1982 Lege Organikoak, abuztuaren 10ekoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoak, Nafarroako Foru Komunitateari aitortzen dio, bere 44. artikuluan,

gizarte laguntzaren alorreko eskumen osoa. Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak nafar guztientzako oinarritzko errenta aldarrikatu zuen, eskubide guztiez osotara baliatu ahal zitezen.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean prestazio bermatutzat hartzen zen hasieran "oinarritzko errenta" eta gaur egun "gizarteratze errenta" deiturikoa; hau da, errenta hori jasotzeko baldintza berariazkoak betetzen dituzten pertsonen eskubide subjektibotzat eta, beraz, Administrazio Publikoari exijitzeko modukotzat.

Gizarteratze Errenta arautzen duen 1/2012 Foru Legeak aldaketa kualitatibo bat sartu zuen ordura arte "oinarritzko errenta" deiturikoan, halako moduz non bereizten baitziren, alde batetik, oinarritzko errenta modu koiunturalean jasotzen duten familia-unitateak, ez horien kideak gizartean bazterturik egoteagatik, baizik eta lana galdu eta langabeziaren prestazioak eta sorospen guztiak ahitu zaizkielako –horiek eskatzen dutena da, nagusiki, laneratzea edo beren enplegagarritasuna hobetzea–, eta, beste batetik, oinarritzko premiei erantzuteko eta, aldi berean, haiek eta beren familia-unitateak gizarteratzen laguntzeko helburua izanen duen prestazio ekonomiko bat behar zuten pertsonak.

Bereizketa horrek aintzat hartzen du gizarteratzeaz arduratzen diren adituek eta erakunde, instituzio eta entitate nazional nahiz nazioartekoek eginiko azterlan eta txosten guztietan agertzen den premisa bat: hain zuzen, enplegua dela gizarte bazterketaren aurkako estrategiarik onena.

Hala ere, helburu nagusi hori geroratuta geratu da gure gizartea pairatzen ari den krisiaren ondorio gogor eta mingarrien eraginez, zeinak agerian jartzen baitira etengabeko enplegu-suntsiketaren, langabezia-tasen areagotzearen eta lanpostu berri gehiago sortzeko zailtasunetan. Gainera, gobernu eskudunek aplikaturiko neurriek ez dute izan,

orain arte behintzat, aurreikusitako eta iragarritako eraginik.

Horren guztiaren ondorioz, pertsona askok agortzen dituzte langabeziako kotizaziopeko prestazioak eta ondorengo sorospenak, eta horrek pobrezia eta bazterketa arrisku handiagoa dakar gure gizartean.

Europa 2020 Estrategian jasotako premisetatik ondorioztatzen denez, lan egiteko adina duten pertsona heldu langabetuek pobrezian erortzeko duten arriskua lana dutenena baino bost aldiz handiagoa da.

Ez-aktiboaren kasuan, erretiroa hartutakoak salbu, arriskua enplegua dutenena baino hiru bider handiagoa da. Horri gehitu behar zaio lan baldintzen prekarizazioa, krisi testuinguru honetan oso hedatuta dagoena eta "langile pobre" deiturikoen sorrera ekarri duena.

Baina langabeziak beste ondorio gehigarri batzuk ere baditu pertsonengan eta familiengan. Diru-sarreraren gutxitzeak berekin dakartza hipotekak ordaintzeko zailtasunak, balizko etxegabeteak, ez ordaintzeak eta baita osasun arazoak eta pertsonen arteko eta familia barreneko harremanen alo-rrekoak. Gainera, arazo horiek areagotu egiten dira krisia luzatzearen eta aukera urritasunaren ondorioz.

Arrazoi horiengatik, gaur, inoiz baino gehiago, gizarteratze errenta ulertu behar da gizarteratze aktiborako estrategia integral baten barruan, zeinak ezarriko baititu egiazko laneratzera bideratutako neurriak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte Politiketako Departamentuaren inplikazioa eta koordinazioa areagotuta gainerako administrazio publikoekin eta eragile sozioekonomiko, entitate, gizarte erakunde eta abarrekin, enplegurako, prestakuntzarako eta laneratzeko politika aktiboak diseinatzeari dagokionez.

Hori dela eta, araudi honen helburua da aurre egitea gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen egun bizi duten egoerari eta krisiaren intentsitatearen eta luzatzearen ondoriozko beharrian sozialen areagotze justifikatuari.

Izan ere, une honetan, pertsona askori eragiten dien eta denboran mantentzen den enplegu falta ondorio oso txarrak ekartzen ari zaizkie familia askori, zailtasunak baitituzte beren oinarrizko beharrianak asebetetzeko; hori dela eta, beharrezkoa da Gizarteratze Errenta arautzen duen 1/2012 Foru Legea aldatzea, koiunturalak izatea espero dugun egoera horiei erantzuteko eta zenbait neurri abian jartzeko pobrezia eta bazterketa aurre egiteko, gizarteratzea eta laneratzea

sustatzeko, gizarte kohesioa ziurtatzeko eta krisi-alditik irteteko modu elkartasunezko bat errazteko.

Artikulu bakarra. Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen aldaketa.

Ondotik adierazten diren foru lege horren aginduak era honetan aldatzen dira:

Bat. 1. artikulua 1. idatz-zatia honela idatzita geldituko da:

"1. Foru lege honen helburua da aldizkako prestazio ekonomiko baterako eskubidea arautzea, bai eta gizarteratze neurriak eta laneratzeko lagungarriak diren prozesu eta programak ezartzea ere, pertsonen eta familia-unitateen bazterketa saihestu, bazterketa egoerak aldatu eta gizarteratzea eta laneratzea sustatze aldera."

Bi. 1. artikuluari beste atal bat eranstean zaio. Eduki hau izanen du:

"2 bis. Gizarteratze errenta besterenezina izanen da eta, horrenbestez, ezin izanen da:

- a) Betebeharren berme gisa eskaini;
- b) Lagapen erabateko edo partzialaren xede izan;
- c) Konpentsazio edo deskontuen xede izan, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko ez bada;
- d) Atxikipen edo bahituraren xede izan, salbu aplikagarri den Estatuko legeria orokorrean ezarritako kasuetan eta aurreikusitako mugekin."

Hiru. 3. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

"2. Salbuespen gisa, gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuaren titularrak emandako foru agindu bidez, eta espedientean objektibotasunez justifikatutako arrazoiengatik, beste pertsona batzuk ere prestazioaren hartzaile izan ahalko dira, baldin eta, haien familia-unitateek artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako baldintza guztiak bete gabe ere, premia egoeran gelditzea eragin duten inguruabar objektiboak badaude, erregelamenduz zehaztuko direnak.

Aurreko lerrokadan xedaturikoa ezertan galazazi gabe, prestazioaren onuradun izan ahalko dira premia egoeran dauden pertsonak, ondoko inguruabarretakoren bat gertatzen bada. Hala, prestazioa eskuratzeko ondoko salbuespen kasuak ezartzen dira:

- a) Adinaren baldintzaren salbuespenak:

1. 25 urtetik beherakoak, 2 kide edo gehiagoko familia-unitate bereizia osatzen dutenak, gutxienez horietako bat gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak kudeatu edo kofinantzatutako laneratze eta gizarteratze proiektu batean sartuta badago.

2. 18 urtetik gorako eta 25etik beherako pertsonak, adingabeentzako programaren batetik datozenak, gainerako baldintza orokorrak betetzen badituzte eta azken 18 hilabeteetan bukatu badute desinstituzionalizatze programa edo autonomia prozesuetako parte-hartzea, adingabeen babesaren arloko zerbitzu eskudunaren jarraipenarekin eta zerbitzu horrek aurretiaz emandako aldeko txostenarekin.

3. 25 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak, familia-unitate bereizia osatzen dutenak eta bere kargurako seme-alaba adingabeak edo legal-ki harturiko adingabeak dituztenak, edota mendekotasun larriaren graduko mendekotasun-egoera aitortua duten edo % 65eko edo hortik gorako ezgaitasun gradua duten pertsonak.

b) Legezko bizitokiaren baldintzaren salbuespena:

1. 2012ko abenduaren 31 baino lehenagotik Foru Komunitatean bizi diren familia-unitateak, Nafarroan bizitokia dutenak, jarraian eta egiazki, eskaera egin den egunaren aurreko 24 hilabeteetan gutxienez ere, eta beren kargurako hamasei urtetik beherako seme-alabak dituztenak.

2. 2012ko abenduaren 31 baino lehenagotik Foru Komunitatean bizi diren familia-unitateak, Nafarroan bizitoki jarraia dutenak, eskaera egin den egunaren aurreko 24 hilabeteetan gutxienez ere, eta, Nafarroako Foru Komunitatean lan egin da, legezko bizitokirik gabe geratu direnak lanpostua galdu izanaren ondorioz.

Kasu horretan, aldi baterako bizitokirako eta besteren kontura lan egiteko baimena berritzeko ebazpenaren zain dauden pertsona atzeritarrei dagokienez, laguntza ematea baimena berritzeak baldintzatuta egonen da. Prestazioa ordainduko da baimen horren berritzea egiaztatu ondoren.

Horrenbestez, baimenaren berritzea egiaztatuko da atzeritartasunaren arloko organo eskudunaren ebazpenaren bidez, edota eskabidea administrazio-isiltasunez onetsi dela esanez baimen-berritzearen eskumena duen organoak luzatutako egiaztagiraren bidez. Egiaztapen hori egin beharko da gizarteratze errenta emateko ebazpena jakinarazten denetik eta gehienez ere hurrengo lau hilabeteko epean.

c) Errentagatiko diru-sarreraren baldintzaren salbuespenak:

Bazterketa egoeran dauden eta gizarteratze eta laneratze zailtasunak dituzten pertsonak, bakarrik daudenak, beren familia-unitatean hartuta daudenak, bizitoki propiorik ez dutenak edo etxebizitza berean anai-arrebekin eta/edo gurasoekin bizitzera doazenak deserrotze sozialeko prozesu- en ondorioz, besteak beste, toxikomaniengatik, buruko gaixotasunengatik edota laneratzea zailago egiten duten bestelako nahasmen larriengatik.

d) Etxebizitzaren arloko gizarteratze programa edo jarduketetan parte hartzen ari diren familia-unitateak, gizarteratze-kontratu bat sinatu dutenak Gizarteratze Etxebizitzen edo Alokairu Sozialeko Etxebizitzen Programen laguntzaile gisa kalifikaturiko entitatearen batekin, kontratua amaitu arte.

e) Familia-unitateak, zeinetako kide bat amaitu gabeko gizarteratze eta laneratze prozesu trinko batean dagoen Nafarroako administrazio publikoetako batek zuzenean edo zeharka kudeatutako gizarteratze eta laneratze zerbitzu batean.

f) Foru Komunitateko harrera-baliabideetan dauden pertsonak, prostituzioaren jarduna utzi ondoren gizarteratze eta laneratze ibilbideak egiten ari direnak.”

Lau. 5. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“2. Salbuespen gisa, aipatu departamentuaren pertsona titularraren foru agindu bidez eta Gizarteratzearen Balorazio Batzordeak aldeztu aurretik aldeko txostena emanda, prestazioaren gehienezko jasotze-aldia, aurreko puntuan ezarritakoa, luzatu ahalko dute egoera hauetakoren batean dauden eskatzaileak:

a) Familia-unitateko hamasei urtez beherako kideen zaintzak galarazten duenean, salbuespenez eta aldi baterako, eskatzailearen eta gainerako kide helduen laneratzea.

b) Familia-unitatean osasun egoera larriak eta/edo bat-batekoak izatea, zailtzen dutenak eskatzaileak eta familia-unitateko gainerako kide helduek ezein ordaindutako lan-jarduera egin ahal izatea.

c) Familia-unitateko kide bat amaitu gabeko gizarteratze eta laneratze prozesu trinko batean dagoenean gizarteratze eta laneratze zerbitzu publiko batean eta gehienez sei hilabetekoa izan den luzapenaren aldeko txostena duenean.

d) Eskatzailea 60 urtez gorakoa denean eta, adina dela-eta, zailtasunak dituen lan merkatuan sartzeko.

e) Familiaren edo hurbilekoen laguntzarik ez duten pertsonak, haien bizi-egoera erabat hondatua dutenak. Egoera horietan, pertsona horiek deserrotze sozialeko ibilbide bat bizi dute, arrazoi desberdinengatik (toxikomaniengatik, buruko gaitasunengatik edota laneratzea zailago egiten duten bestelako nahasmen larriengatik).”

Bost. 7. artikuluari beste atal batzuk eransten zaizkio. Eduki hau izanen dute:

“3 bis. Onuradunaren familia-unitatearen egoera zein den, gizarteratze-akordioa edo, kasu bada, gizarteratze- eta laneratze-akordioa izenpetuko da.

3 ter. Akordio horretan parte hartuko dute, alde batetik, oinarrizko gizarte zerbitzuek edo, kasu bada, gizarteratzeko eta laneratzeako ekipoek, beren profesionalen bitartez, eta, bestetik, eskatzaileak eta, bidezkoa bada, bazterketa egoeran egoteagatik akordioan jasotako ekintzen onuradun izan daitezkeen familia-unitate hartzaileko pertsona adinez nagusiek.

Halaber parte hartu ahalko dute akordio horiek prestatzen edo betetzen esku-hartze sozialaren eta soziolaboralaren alorrean jarduten duten gizarte ekimeneko entitateek, oinarrizko gizarte zerbitzuekin koordinatuta.

3. quater. Akordioa egituratuko da eskatzaileen eta bere familia-unitatea osatzen duten pertsonen ezaugarri, beharrian eta ahalbideen arabera, eta bertan zehaztu beharko dira lortu beharreko helburuak, egin beharreko jarduerak eta horien denboralizazioa.

3 quinquies. Akordioek aintzat hartuko dute bakoitzaren egoera, eta kontuan hartuko dituzte lanpostua galtzearekin eta langabeziagatik prestatzio eta sorospenak agortuta izatearekin loturarik zuzenena duten egoerak, eta horietatik bereiziko dituzte behar bezala egiaztatutako bestelako inguruabarren ondoriozkoak.

3 sexies. Lankidetzak hitzarmenak egin ahalko dira gizarteratze eta/edo laneratze ibilbideak egiten dituzten gizarte entitateekin, akordioen jarraipena egiteko eta laguntza emateko.”

Sei. Kapitulu berri bat gehituko da. Hauxe da kapitulu berriaren edukia:

“III. kapitulua
Prozedura.

16. artikulua. Prozeduraren ezaugarriak

Gizarteratze errentari eta gizarte zerbitzuen zorroko prestatzio bermatu guztiei buruzko espedienteen izapidetzea prozedura laburtu eta lehentasunezko baten bidez eginen da.

Hala, espedienteak izapidetzeko ardura duen administrazio-unitateak gehienez ere bi hilabeteko epean baloratu beharko ditu, prozedura ebazteko organo eskudunaren erregistroan eskabideari sarrera ematen zaionetik.

17. artikulua. Administrazio-isiltasunaren esanahia

Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena legez ezarritako epean jakinarazten ez den kasuetan, oro har, eskabidea administrazio-isiltasun positiboaren bitartez baietsi dela joko da, eta kontuan hartuko da eskabidea Nafarroako Gobernua- ren erregistro ofizialetako batean aurkezten dene- ko data.

Aurrekoa gorabehera, espedienteak izapidetzen duen departamentuak dokumentazio osagarria eskatzen duenean, espedienteak osatu gabe egoteagatik, eskaera hori egiten denetik bere aurkezpen ofizialera arteko epea ez da konputatuko eta, horrenbestez, legez ezarritako epea eten eginen da.

Eskaera ezesten den kasuetan, behin ezezkoa jakinarazi ondoren, aipatu prestatzio ekonomikoaren ordainketa etenen da jakinarazpenaren datatik aurrera, eta Administrazioak ezin izanen du eskatu ordura arte jasotako kopuruak itzultzeko.”

Zazpi. Ondoko xedapen gehigarriak erantsiko dira:

“Bigarren bis xedapen gehigarria.

Langabeziaren areagotze eta enplegu suntsitze egoera honek zaildu egiten duenez gizarteratze errentari bere hedadura osoan heltzea, egiazko laneratzerako bideratutako neurriak jasotzen dituen gizarteratze aktiborako estrategia baten zati integral gisa, Gizarteratze Errenta arautzen duen 1/2012 Foru Legean arau honen bidez eginiko aldaketak indarrean egonen dira, gutxienez, Nafarroan langabeziaren kopuruak % 10etik beherakoa izan arte.

Bigarren ter xedapen gehigarria. Gizarteratze errenta jasotzen duten pertsonak zuzenean kontratatze-ko diru-laguntzak.

Gizarte zerbitzuen alorreko departamentu eskudunak bideratu ahalko du bestelako diru-sarrerak osagarri ez duen pertsona eskatzaile bati legokiokeen gizarteratze errentaren gehienezko kopururainoko zenbatekoa, kontusail berberaren kargura, bai toki entitate publiko batera, bai irabazi asmorik gabeko entitate pribatu batera edo enpresa batera, entitateak edo enpresak pertsona hori kontratatzen badu sei hilabeterako edo gehiagorako, eta kontratazio horrek plantillaren handitze

garbia badakar, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren foru agindu bidez egiten den diru-laguntzen deialdiaren esparruan.”

Zortzi. Xedapen iragankor bakarra horrela geldituko da:

“Xedapen iragankor bakarra: Eskabideen aldi baterako araubidea.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik, izapidetzen ari diren eskaerak eta gizarteratze errentaren prestazioa berritzeko eskaerak bertan ezarritako moduan izapidetu eta ebatziko dira.”

Bederatzi. Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

“Indarrrik gabe geldituko dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, espresuki, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legeko lehenengo xedapen iragankorra.”

Hamar. Azken xedapenetan lehena. Erregela-mendu bidezko garapena.

“1. Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu

bidez onetsiko du foru lege honen erregelamendu bidezko garapena.

2. Gizarteratze errentaren prestazioa erregela-menduz garatuko duen foru dekretua indarrean sartu arte, foru lege honetan jasotako salbuespenak Gizarte Politiketako kontseilariaren foru agindu bidez garatuko dira.”

Hamaika. Azken xedapenetan bigarrena. Gizarte zerbitzuen zorroa aldatzea.

“Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren 1. eranskineko 7. atala (Gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonak) aldatzen da, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.”

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 27ko 5/1990, ekainaren 23ko 9/1992, abenduaren 30eko 15/1993, uztailaren 2ko 11/1996 eta otsailaren 14ko 4/2003 Foru

Legeek Nafarroako Gobernua eta Nafarroako toki entitateak gaitu dituzte haien zerbitzuko langilemota ezberdinek funtzionario-izaera eskuratzeko hautapen-epeak abian jartzeko.

“Funtzionarizazio-prozesu” deituriko horien ondorioz, Nafarroako administrazio publikoentzat zerbitzuak ematen ari ziren ehunka pertsonak funtzionario-izaera eskuratu ahal izan dute; horrenbestez, urrats handiak egin dira sektore publikoko langile guztien errealitatea berdintasun handiagokoa izan dadin.

Oraingoan, asmoa da lege honen bitartez bidea irekitzea Nafarroako administrazio publikoetan diharduten lan-kontratupeko langile finkoentzako funtzionarizazio-prozesu berri bati. Helburuak agerikoak dira, xedea baita administrazio publikoetan diharduten langile guztiek funtzionario-izaera bera izan dezaten eta, halatan, nahi izatekoa ez den kontratazio-ereduen bitasun honi amaiera jartzeko urratsak egin daitezzen; izan ere, bitasun horretatik eratoritzen da, baiki, entitate publiko berari zerbitzu berdinak ematen dizkieten langileei ezberdintasunezko tratamendua ematea. Horrela, eta langile finkoen kontratazio berriak funtzionario-tzaren esparruan egitearen ildotik, berdintasun-printzipioaren ikuspegitik egokiena denez gero, kontua da atzerabegirada bat botatzea jadanik fin-katurik dauden lan-kontratuen esparruko kontratazioei, aipaturiko izaera hori eskura dezaten.

1. artikulua.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beste hautapen-epe bat ireki dezan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatutupeko langileek eta lan-kontratupeko langile finkoek funtzionario-izaera eskuratzekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurri buruzko otsailaren 14ko 4/2003 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritako baldintza beretan.

2. artikulua.

Halaber, Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekin ahalko diote, beren lan-kontratupeko langile finkoek funtzionario izaera eskuratzeko.

3. artikulua.

Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta eszedentzia berezian dauden Nafarroako toki administrazioiko eta bere erakunde autonomoetako plantillako lan-kontratupeko langile finkoek aukera izanen dute Administrazio Publikoetan zerbitzuko

tzuko Langileen Estatutuan integratzea hautatze-ko, baldin eta hala erabakitzen badute toki entitateetako gobernu-organo eskudunek, erabaki bat hartuz beren langileen integrazio-prozesua hastearen alde, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik bi hilabeteko epean.

4. artikulua.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen aukera hori ez dute izanen aldizkako lanpostuak edo lanaldi partzialekoak betetzen dituzten lan-kontratupeko langile finkoek.

Orobat halako aukerarik gabekoak izanen dira finkoa ez den lanpostu bat eskuratu ondoren finko bihurtu diren langileak, funtzio publikoan sartzeko legalki ezarritako prozeduraren bidez.

5. artikulua.

1. Integrazio-eskabidea toki entitatearen lehen-dakariari zuzendu beharko zaio, toki entitatearen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

2. Eskabideari erantsiko zaio kokatze-mailari dagokion titulazioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 12. eta 15. artikuluetan xedatuari jarraituz.

6. artikulua.

1. Toki entitateko idazkariak, interesdunen espediente pertsonalak eta haiek eskabideetan eta aurkezturiko titulazioan adierazitako datuak aztertu ondoren, legezotasun-txostena emanen du, eta ebazteko eskudun den organoari igorriko dio dokumentazioa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasita hoge eguneko epean.

2. Toki entitateko organo eskudunak, dokumentazioa eta idazkariaren txostena ikusirik, integrazioari buruz egoki den ebazpena emanen du, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko baita.

7. artikulua.

1. Funtzionario izaera lortzen duten langileek ordura arte aplikatu zaien gizarte aurreikuspen eta segurantzako sistema izaten segituko dute, eta ordura arte betetzen zuen lanpostuari atxikita segituko dute.

2. Langile horiei aplikatuko zaizkien ordainsariak izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta hori garatzen

duten arauetan funtzionarioentzat ezartzen direnak.

8. artikulua.

1. Interesdunei zuzendutako aginduzko jakinarazpen indibidualizatua ezertan galarazi gabe, argitaratzen den integrazio-ebazpenak eranskin batean jaso beharko du integratzen diren langileen zerrenda, horrekin batera zehaztuta haiek betetzen duten lanpostua, haien maila, aitortuta duten antzinasuna eta dagokien funtzionario-gradua; horrez gain jaso beharko ditu, kasua bada, integrazioa ukatzen zaien langileen zerrenda eta ukoren zergatia.

2. Halaber zehaztuko da integrazioa bera zein egunetan gauzatutzat jotzen den. Justifikaturiko kausaren bat tarteko denean izan ezik, langile guztientzat berbera izanen da egun hori, eta 2013ko uztailaren 1a baino lehenagokoa.

3. Eskabidea erregelamenduzko epeen barruan aurkeztuta edukitzeaz gain integrazioa gertatzen den egunean kontratu-harremana etenik duten langileak integratutzat joko dira, ondorio guztietarako, beren lanpostuan jardutera itzultzen diren egunean.

9. artikulua.

Funtzionario-gradua esleitzeko, toki entitateek honako irizpide hauek aplikatuko dituzte:

1. 1983ko abenduaren 31n 7 urte edo gehiagoko antzinasun aitortua zeukaten langileei gradu bat erantsiko zaie data horretara arte emandako zazpi zerbitzu-urte bakoitzeko, 1. gradutik abiatuta.

2. 1983ko abenduaren 31ko gradu-antzinasunetik abiatuta, eta hurrengo zenbakian adierazitakoa ezertan galarazi gabe, gradu berean 8 urteko iraunaldia kontatuko da hurrengo gradura igotzeko.

3. 1991ko abenduaren 31ko gradu-antzinasunari dagokionez, 6 urte eta 7 hilabete igarotzearen ondoriozko igoera-sistema aplikatzen da.

10. artikulua.

Funtzionario-izaera eskuratzen ez duten lan-kontratupeko langile finkoek jardunean ari diren lanpostu berari atxikita segituko dute.

Xedapen honetan ezartzen den prozeduraren bidez egiten den Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren aplikazioak ez du ezein kasutan ekarriko interesdunari maila altuagorik esleitzea lan-kontratupeko langile finko gisa kasuko administrazioan sartzeko eskatu zitzaion titulazioa baino, salbu eta legez ezarritako prozeduretako baten bitartez mailaz igo denean.

Behar den titulazioa ez edukitzeagatik funtzionario-izaera eskuratu ezin duten lan-kontratupeko langile finkoek izaera hori eskuratzea eskatu ahalko dute titulazio hori lortzen dutenean. Aukera hori izateko eskubideaz baliatzeko, titulazioa lortu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epea izanen dute.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide egokia eman diezaien seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko laguntza ukatu zaien familia guztiei.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PAXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita konponbide egokia eman diezaien seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatiko laguntza ukatu zaien familia guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, eztabaidatu eta bozka dadin.

2012ko ekainaren 12an argitaratu zen 233/2012 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik diru-laguntzak ordaintzeko deialdiaren oinarriak onesten dituen, zeinari esker 396,31 euro jasoko

baitzuten hilero diru-laguntzaren familia onuradunek.

Foru agindua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta astebetera, Gobernuak blokeatu egin zuen kontusaila, zeina gero jaitsi egin baitzen, halako moduan non 400 familia baino gehiagori ukatu baitzaie laguntza.

Gizarte Politiketako Batzordeak martxoaren 26an egindako lan bileran kaltetutako familien ordezkariak azaldu zuten, "udako hilabeteetan ez ziguten inolako informaziorik eman, laguntzarik gabe geldituko ginela pentsaraziko ziguna. Izan ere, normaltasun osoz jarraitzen zuten eskabideak jasotzen. Areago; abuztuaren 2an, Teresa Nagore Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko zuzendari berriak hedabideetan adierazi zuen funtsezkoena zela "Administrazioak laguntza ematea familiei krisi garai honetan, zenbait familiak egoera oso zaila bizi baitute". Asmo-adierazpen horrek berretsi besterik ez zuen egin Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcinak inbestidurako hitzaldian egindako apustua, Gizarte Ongizatearen atalean adierazi baitzuen "hurrengo urteotan, jarduketa ildoek azpimarra jarri behar dutela prestazioetarako eskubidea bermatzean, bai eta familia gizarte-politikak taxutzen laguntzeko zeharkako ardatz bihurtzean ere". 2011ko ekaina zen, eta orduan ere bazegoen krisi ekonomikoa.

Hilabeteak joan ziren informaziorik gabe, inolako informaziorik gabe (onerako nahiz txarrerako), harik eta, 2012ko irailaren 20an, Gizarte Politiketako kontseilariak foru agindu bat sinatu zuen arte, zeinaren bidez 756.000 euro jaitsi baitziren seme-alabak zaintzeko eszedentzien laguntzak. Murrizketa urriaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean

argitaratu zen. Hala ere, normaltasun osoz jarraitzen zuten eskabideak jasotzen.

Murrizketa drastiko horrek eragin du 400 familia nafar baino gehiago egon gaitezen abandonu eta babesgabetasun egoeran. Nabarmen aldatu zizkiguten, kolpe batez, jokoaren arauak; ekainaren 12an ezarritako baldintzak, zeinetan oinarrিতා hartu baikenituen gure zenbait erabaki ekonomiko.

Ondorioz, uko hori gaizkiagotu egin dute administrazioaren okerrek, informazio gardenik ezak eta komunikazioari begira hautemandako gabeziak; hartara, kaltetutako familiek jotzen dute babesgabetasun egoeran daudela argi eta garbi, kalte ekonomikoaz eta administrazioarekiko konfiantza galtzeaz harantzago.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide positibo bat eman diezaien, deialdi berri bat egin baino lehen, laguntza ukatu zaien familia guztiei, ordainketa osorik egitea ahalbidetuko duen modu bat bilatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eszedentziagatik laguntza ekonomikoaren jarraitutasuna ziurta dezan, langileen familia eta lana bateragarri egiteko, eta Nafarroako familia guztietako jaiotze-tasa igotzeko, neurri osagarri gisa.

Iruñean, 2013ko apirilaren 4an

Foru parlamentariak: José Antonio Rapún León, María Victoria Arraiza Zorzano, Bikendi Barea Aiestaran, Patxi Zabaleta Zabaleta, Amaya Zarranz Errea, Txema Mauleón Echeverría eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoen Negoziatio Mahai Orokorreko sindikatuekin, sektore publikoko langileei ordaintze aldera 2012ko abenduan beren nominetatik kendutako lansari-zatia.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita negoziatio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoen Negoziatio Mahai Orokorreko sindikatuekin, sektore publikoko langileei ordaintze aldera 2012ko abenduan beren nominetatik kendutako lansari-zatia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatean aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legeak zioen azalpenean dio defizitaren kontrolari, lehiakortasunari eta garapenari buruzko zenbait baldintza betetzen baldin badira, Nafarroako langile publikoekiko harremanetatik sortzen diren betebeharrak betetzeko modua egonen dela. '

Kontuan izan beharra dago ordainsari bat kentzeaz hitz egiten zuela Nafarroako Gobernuak, Parlamentura lehenago igorritako Foru Lege proiektuan. Eta ordainsari bat kendu ere kendu du, urtarrilaren 2ra nahita atzeratuta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erosahaltenaren galera dela-eta aldi baterako osagarri pertsonal bat 2012rako eraginarekin sortu zuen Foru Legea.

Erabaki proposamena:

Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatzen du negoziazio prozesu bat has dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako negoziazio mahai orokorrean dauden sindikatuekin, ezartze aldera noiz eta nola itzuliko zaien sektore publiko-

ko langileei 2012ko abenduko beren nominetatik kendu zaien lansariaren parte.

Iruñean, 2013ko apirilaren 5ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alde batera utz ditzan Esako urtegia handitzeko lanak, egungo urtegian segurtasuna mantentzeko neurriak har ditzan, informazio gardentasunez joka dezan ukituriko herritar eta udalekin eta larrialdi plan bat diseina dezan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alde batera utz ditzan Esako urtegia handitzeko lanak, egungo urtegian segurtasuna mantentzeko neurriak har ditzan, informazio gardentasunez joka dezan ukituriko herritar eta udalekin eta larrialdi plan bat diseina dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ikusita Esako urtegiako mazeletan gertatutako arazo berriak, bai eta urtegiako uretan behera bizi diren bizilagunen artean arazo horien ondorioz gertatutako kezka, uste dugu beharrezkoa eta presakoa dela erantzun bat ematea herritarrei, txundi-

turik ikusten baitute administrazio ezberdinak ez direla gai arazo larri horri konponbide bat emateko.

Urtegiako bi mazelek portaera ezegonkorra izan dute betidanik, etengabe mugitu dira, eta agintari eskudunek ondoz ondo proposatutako konponbideek huts egin dute nabarmen, garestiak izateaz gain.

Horren aurrean, kaltetutako bizilagunei errealitatea ezkutatu ez ezik, informatu ere ez zaie egiten larrialdi plan bat dagoen ala ez eta horren balizko implementazioari buruz, nahiz eta araudiak horretara behartu.

Sustapen Batzordea bisitan joan zen, apirilaren 5ean, urtegia handitzeko eta bi mazelak egonkortzeko obretara. Bisitan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoko zuzendari Xabier de Pedrok zenbait azalpen generiko eman zituen, batere zehaztasunik gabeak, luizien balizko zergatiari eta segurtasun baldintzei buruz. Esan zuenaren arabera, egiten ari diren azterlanek zehaztuko dute zenbateko arriskua dagoen eta zer konponbide proposatuko den. Adierazi zuen badaudela datuak azken hilabeteotako luizien abiaduran gertatutako aldaketei buruz, baina ez zion jaramonik egin informazio hori emateko eskari espresari.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazi nahi die kaltetutako esatarrei, beren etxeak utzi behar izan baitituzte ustekabeen, jakin gabe ea noiz eta zer baldintzatan itzuli ahalko diren horietara.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren menpeko administrazioak premiatzen ditu –Landa Garapeneko Departamentua, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Departamentua, Sustapeneko Departamentua eta Nafarroako Larraldietako Agentzia–, bai eta Espainiako Gobernuaren menpekoak ere –Sustapen Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa–, beti gardentasunez informa diezaieten ukitutako bizilagunei eta urtegi-ko uretan behera dauden herrietako udal agintari-ei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, egungo presaren segurtasuna mantentzeko, urtegi-urtegi-ko urak hein batean husteraino, beharrezkoa balitz, kota seguru batera iritsi arte.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du larraldi plan bat taxutu dezan Zangozako hiriarentzat, eta informazio egokia

eman diezaien herritarrei, baita jarduteko sistema argi bat ere, are hiria husteko sistema bat ere, egungo presan arazo larriak detektatzen diren kasurako, eta azter dezan zergatik plan hori ez den egin edo ezarri, eta nortzuk diren hori egin ez izanaren arduradunak.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du bertan behera utz dezan Esako urtegia handitzeko proiektua; izan ere, ez dauka gutxieneko segurtasun-bermerik, eta urtegi-ko uretan behera dauden herriek nekez jasaten ahal den ziurgabetasuna pairatzera behartzen ditu, zeina areagotu egin baita etorkizuneko presako obretarako berebiziko garrantzia duen eremuan gertatutako azken ezegonkortasun-adierazpide geologikoak direla eta.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko.

Nafarroa kultur ondare paregabeko lurraldea da. Ondare horren barruan, eraikin historiko-artistikoak nabarmentzen dira, zeinak hain ugariak baitira gure lurraldean, Nafarroaren historia oparoaren ondorioz. Eraikin bikainenek “Kultur Intereseko Ondare” kalifikazioa dute; hau da, nazioko nahiz foru komunitateko gure legedian aurreikusitako babes-mailarik altuena.

Baina oraindik ere badago beste maila handiago bat, igotzen oso zaila dena: Gizateriaren Ondarearen ondasun deklaratzeko. 1972an, UNESCOren Biltzar Orokorrak “Munduko Natur eta Kultur Ondarea Babesteko hitzarmena” onetsi zuen; harrezkero, zerranda horretan ahal den ondasun-

kopuru handiena sartzen saiatu dira tokiko, erre-gioetako eta nazioetako erakundeak. Une hone-tan, Espainiako 44 ondasun daude sartuta mundu-ko ondarearen zerrenda horretan, eta horietatik bakar bat dago Nafarroa zuzenean ukitzen duena: Donejakue bidea.

Aurtengo otsailaren 20an jendaurrean aurkeztu zen "Lizarra, Nafarroako ondare-hiria" herritar-elkartea, zeinak bere baitan biltzen baititu kultura-ren, hezkuntzaren eta enpresen ordezkariak, bul-tzatze aldera "beharrezkoak diren kultur eta ekonomia-jarduera guztiak, natur, kultur eta gizar-te ondarea kontserbatzeko, zaharberritzeko eta mantentzeko, helburu berezi batekin: Lizarra Giza-teriaren Ondare diren hirien UNESCOren zerren-dan sar dadin lortzea."

Halaber, elkartearen aurkezpenean, hedabide-ek jaso zuten bezala, Lizarrako alkatea eta udal talde guztiak egon ziren hari babes ematen; oso gutxitan gertatzen da hori Lizarrako Udalean eta, horrenbestez, azpimarratzea merezi du.

Elkartearen ordezkariak agerraldia egin zuten martxoaren 20an Nafarroako Parlamentuan, elkar-tearen helburuez eta bere jardueraren printzipioez eta balioez informatzeko. Emandako informazioa

interesarekin hartu zuten Kultura, Turismo eta Era-kundeekiko Harremanetarako Batzordeko talde politiko guztiek, eta denek adierazi zuten beren borondatea ekimen horri babes aktiboa emateko.

Horrenbestez, operazioa ondo bukatzea erraz-tearren, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du lan batzorde misto bat osa dezan Lizarrako Udalarekin batera, hiri horretako eraikin historiko hutsen etorkizuna aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bi erakunde horiek premiatzen ditu eska diezaieten beren iritzia, ego-kien iritzitako bideak erabiliz, hiriko kultur eta gizarte taldeei, gizarte zibilari parte harrarazteko konponbide asebetegarrien eta sozialki onartuen bilaketan.

3. Nafarroako Parlamentuak bi erakunde horiek premiatzen ditu batzorde misto hori heldu den hiruhilekoan zehar abian jar dezaten, eta 2013a bukatu baino lehen Parlamentuko agerraldi batean informa dezan egindako lanari buruz.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aktiboki lagundu dezan Lizarra Gizateriaren Ondare deklaratzeko prozesuan.

Nafarroa kultur ondare paregabeko lurraldea da. Ondare horren barruan, eraikin historiko-artistikoak nabarmentzen dira, zeinak hain ugariak baitira gure lurraldean, Nafarroaren historia oparoaren ondorioz. Eraikin bikainenek Kultur Intereseko Ondare kalifikazioa dute; hau da, nazioko nahiz foru komunitateko gure legedian aurreikusitako babes-mailarik altuena.

Baina oraindik ere badago beste maila handiago bat, igotzen oso zaila dena: Gizateriaren Ondareko ondasun deklaratzeko. 1972an, UNESCOren Biltzar Orokorrak "Munduko Natur eta Kultur Ondarea Babesteko hitzarmena" onetsi zuen; harrezkero, zerrenda horretan ahal den ondasun-kopuru handiena sartzeko saiatu dira tokiko, erre-

gioetako eta nazioetako erakundeak. Une hone-tan, Espainiako 44 ondasun daude sartuta munduko ondarearen zerrenda horretan, eta horietatik bakar bat dago Nafarroa zuzenean ukitzen duena: Donejakue bidea.

Aurtengo otsailaren 20an jendaurrean aurkeztu zen "Lizarra, Nafarroako ondare-herria" herritar-elkarteak, zeinak bere baitan biltzen baititu kulturaren, hezkuntzaren eta enpresen ordezkariak, bultzatze aldera "beharrezkoak diren kultur eta ekonomia-jarduerak guztiak, natur, kultur eta gizarte ondarea kontserbatzeko, zaharberritzeko eta mantentzeko, helburu berezi batekin: Lizarra Gizateriaren Ondare diren hirien UNESCOren zerrendan sartzea".

Elkartearen ordezkariak agerraldia egin zuten, martxoaren 20an, Nafarroako Parlamentuan, elkartearen helburuez eta bere jardueraren printzipioez eta balioez informatzeko. Emandako informazioa interesarekin hartu zuten Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordeko talde politiko guztiek, eta denek adierazi zuten beren borondatea ekimen horri babes aktiboa emateko.

Operatiboak izan eta ekimen hori ahal den neurrian errazte aldera, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babes aktiboa emanen duela Lizarrako hiria "Nafarroako Ondare-hiri" deklaratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako hiria "Nafarroako Ondare-hiri" deklaratu dezan, egoki diren bideak erabilita eta egoki den dokumentazioa alde aurretik prestatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar den babes politiko eta tekniko guztia eman dezan, Lizarrako hiria Gizateriaren Ondare deklaratzeko hautagaitzaren espedientea ahal den osatuena eta operatiboena izan dadin, lortu nahi den helburua lortzeari begira.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Eleduna: Roberto Jiménez Allik

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da instalazio publikoetan egin daitezten haurdunaldiaren borondatezko eteteak, legean eta Kontuen Ganberaren gomendioetan esaten den moduan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita instalazio publikoetan egin daitezten haurdunaldiaren borondatezko eteteak, legean eta Kontuen Ganberaren gomendioetan esaten den moduan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kontuen Ganberak txostena egin du haurdunaldia eteteko ebakuntzen kostu ekonomikoari buruz, zeinetan adierazten baita merkeagoa izanen litzatekeela ebakuntza horiek zerbitzu publikoan egitea eta, are, erdira jaits litezkeela etete farmakologikoak. Txosten hori ikusita, eta kontuan hartuta, orobat, haurdunaldia etetea legeak aitor-tutako eskubide bat dela, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gain har ditzan eta sistema nahiz instalazio publikoetan egin daitezten abortuak, legeak ezarritakoarekin eta Kontuen Ganberak egindako gomendioekin bat.

Iruñean, 2013ko apirilaren 9an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari eskatzeko beren eskumenak erabil ditzatela dikeen mantentze- eta konpontze-lanei dagokienez, azpiegitura publikoak diren aldetik.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari eskatzeko beren eskumenak erabil ditzatela dikeen mantentze- eta konpontze-lanei dagokienez, azpiegitura publikoak diren aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko Batzordean eztabaidatzeko.

Nafarroako Erriberan gertatutako uholdeek kaltetutako zenbait herritako alkateek eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko lehendakariak iragan apirilaren 5ean –ostirala– egindako bileran, zeinean Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari Esparza jauna ere egon baitzen, alkateei adierazi zieten Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ez duela bere gain hartuko kaltetutako lubeten eta dikeen konponketa.

Nafarroako Alderdi Sozialistaren ustez, Konfederazio Hidrografikoak ardura zuzena du kalte horiek konpontzeko, azken urteotako planifikazio ezarengatik eta historian zehar hala egin izan duelako.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du egin beharreko zuzemenak

egin ditzan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari eta hari atxikitako Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exijitzeko berehala balia ditzaten dikeen mantentze-lanen eta konponketaren arloan ditzuten eskumenak, azpiegitura publikoak diren neurrian. Orobat exijitzen die epe luzeagorako plangintza bat egin dezaten, kalte larri horiek zuzentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, ikusita Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ezetza eman diola kalte horien konponketa bere gain hartzeari, eta konponketa hori presakoa dela ikusita eta kontuan hartuta udalen egoera ekonomikoa zaila dela, nekazaritza-azpiegituretako kalteak ebalua ditzan eta beharrezkoa den konponketa finantzatzeko behar den kontusaila gaitu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio errenta-galeragatiko laguntzak abiaraz ditzan kaltetutako nekazariarentzat.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita hitzarmen bat sina dezan Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako abokatuen elkargoekin, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak urte anitzeko hitzarmen bat sina dezan emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatzeko.

Emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua Nafarroako emakume guztiei zuzenduriko doako zerbitzu bat da, informazioa eta aholkua ematen duena, bai eta lagun-egitea eta laguntza juridikoa ere, bereziki tratatu txarren kasuan edo/eta sexu erasoaren kasuan.

Urtero, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak hitzarmen bat sinatzen du Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Tafallako abokatuen

elkargoekin, doan emate aldera berehalako laguntza zerbitzua eta aholku juridiko orokorrekoa.

2013ko apirilaren 10ean, ordea, oraindik lortu gabe dago zerbitzu hori 2013an emateko akordioa. Urtea hasi eta handik zenbait hilabetera hitzarmena sinatzearena ez da berria, azken urteotan gauza bera gertatu baita, eta horrek ziurgabetasuna eragiten du, bai zerbitzuaren hartzaileen artean, bai zerbitzua artatzen duten profesionalen artean ere.

Urtero errepikatzen den egoera hori konpontze aldera eta zerbitzuari bere eginkizunak betetzeko

aurrekontu-egonkortasuna emate aldera, talde popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urte anitzeko hitzarmen bat sina dezan, Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako abokatu elkargoen eta Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren artekoa, emakumeentzako laguntza juridikoaren zerbitzua ziurtatze aldera.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskadi eta Errioxako gobernuekin negoziata dezan Unescori Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera aurkeztutako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko beste espazio batzuk.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Euskadi eta Errioxako gobernuekin negoziata dezan Unescori Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera aurkeztutako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko beste espazio batzuk.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baita Euskadi eta Errioxako gobernuekin negoziata dezan Unescori Errioxako mahastien paisaia “kultur ondare” deklaratzeko aldera aurkeztutako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko beste espazio batzuk.

Euskadiko eta Errioxako gobernuek hautagaitza bultzatu dute, Errioxako mahasti tradizionalak –eta bere paisaia bereziak– “kultur ondare” deklaratu dituzan Unescok; baina hautagaitzak ez ditu jasotzen Errioxa Jatorri Deitura kalifikatuko mahastien adierazgarri diren zenbait espazio eta giro.

Hori da hedabideek argitaratu eta zabalduko informaziotik ondorioztatzen dena; halatan, herri-tarrek eta ardoaren sektoreak ezusteko handia hartu dute jakin dutenean proposatutako mugak Arabako lursail guztiak hartzen dituela, baina Errioxako lursailen parte ñimiño bat besterik ez, eta Nafarroako lursailik bat ere ez, Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuari atxikitakoen artean.

Hasierako proposamenean sartutako lursailak aitorpenik handiena merezi dute, noski, baina badi-ra beste batzuk antzeko balioa dutenak eta ezin direnak hautagaitza horretatik kanpo utzi, zeinaren bidez bilatzen baita Unescok “kultur ondare” deklaratzeko Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko ardoen paisaia, giro, espazio eta mahasti tradizionalak.

Hautagaitzan beste eremu batzuk sartu ez izana konparaziozko bidegabekeria modura hartu dute zenbait sektorek, ondorio garrantzitsuak izan ditzakeena gure erkidegorako estrategikoa den sektore batean.

Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko ardoaren kalitate edo paisaiaren balioak publizitatez biltzen duen ekimen oro estimatu eta sustatu behar dute administrazio publikoek eta herritarrek, baina betiere ahaleginak bateratzeko eta denen onerako diren inertiak sortzeko helburuarekin, eta sekula ere ez eskualdeen arteko tentsioak sustatzeko edo gai honetan funtsezkoa den ekintza-batasuna kaltezeko.

Horregatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Euskadi eta Errioxako gobernuekin negoziata dezan Unescori Errioxako mahastien paisaia "kultur ondare" deklaratzeko aldera aurkeztutako hasierako hautagaitzan sartzea Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko beste espazio batzuk, mahasti tradizionalen paisaiaren kontserbazioari dagozkion balio esanguratsuak dituztenak eta mahastizaintzari eta ardogintzari lotutako kulturaren erreferente direnak; zehazki, Viana, Aras, Mendabia, Andosilla, Azagra, San Adrián, Barga eta Sartagudakoak eta Las Cañas aintzirakoak.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa, arantza bifidoa duten pertsonen errolda sor dezan eta 2006tik dagoen kontusaila mantentzen.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen baita bete dezan 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa, arantza bifidoa duten pertsonen errolda sor dezan eta 2006tik dagoen kontusaila mantentzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasunaren sustapen integraleko programa 2005ean sortu zen, arantza bifidoa duten pertsonentzako kontusail bat aurreikusituz zenean Nafarroako aurrekontu orokorretan, arantza bifidoa duten pertsonen eta haien senitartekoen bizi-kalitatea hobetzeko xedez, parte-hartzaileen osasunean eta, ondorioz, beren autonomia fisikoan eta psikologikoan, eragin zuzena duten bi zerbitzuren bidez. Halatan, programa honek bi helburu ditu, eta hortik heldu dira programa osatzen duten zerbitzuak. Hona helburu nagusiak:

1.- Ezgaitasuna duten pertsonen beharrezko egokitutako fisioterapia zerbitzu bat ahalbidetzea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako lanaren osagarri eta lagungarri.

2.- Arantza bifidoa duten pertsonen garapen fisiko eta mental gorenaren sustatzea.

Hona programa honetako jarduerak, aurrekontu-murrizketek kaltetuak:

a- Fisioterapiaren arloa: Arantza bifidoa duten 15 pertsona. Banakako tratamenduko 630 saio egin dira 2012an.

b- Psikologiaren arloa: 18 pertsona artatu dira (arantza bifidoa duten 11 pertsona eta 7 guraso). Banakako 583 esku-hartze terapeutiko egin dira guztira.

c- Gizarte lanaren arloa: Hastapeneko elkarrizketak, zerbitzu ezberdinetan sartzeko eta fisioterapiako eta psikologiako zerbitzuetara bideratzeko, profesionalek balorazio bat egin dezaten parte-hartzaileak zerbitzua behar duen ala ez jakiteko. Zundaketa-tailerren programazioa eta inplementazioa, psikologoarekin batera, eta autozundaketarako esku-hartze planena.

Parlamentariok Nafarroako Arantza Bifidoaren eta Hidrozefaliaren Elkartera bisitan joan ginenean, egiten dituzten jardueri eta murrizketen ondorioz aurrera egiteko dituzten zailtasunei buruzko informazioa eman ziguten, eta, gure aldetik, beren jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzeko konpromisoa hartu genuen. Gaurko egunean, desagertzeko arriskua dute.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozioa bete dezan. Hona mozioa:

- Gaixotasun hori dutenei arreta integrala emateko protokolo bat ezartzea. Protokolo horrek koordinazioa eta banakako jarraipena sustatuko ditu, gaixoaren oinarizko osasun laguntzako sendagilearen bidez, eta aholkulari adituaren figura ezarriko du, erreferentziako teknikari gisa.

- Arantza bifidoari aurrea hartzeko eta horri buruz informatzeko kanpainak egitea.

- Egin beharreko zuzemenak egitea, Nafarroan arantza bifidoaren gaixotasuna dutenei gaixo kronikoak direla aitortzeko.

2- Arantza bifidoarekin jaiotako pertsonen errolda eta jaio ez direnena sortzea, gaixotasunaren eragin erreala ezagutzeko.

3- Laguntza Psikologikoko Zerbitzua (autozundaketa barne) eta Fisioterapiako Zerbitzua emateko kontusaila, zeina 2006tik baitago eta 30.500 euro baitu, mantentzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 11n

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Enrique Martín de Marco eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, premiatzen da III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzera.

ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez premiatzen baita III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, III. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat sustatzeari buruzko mozioa aurkeztu dute, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zenetik 82 urte igaro direnean, abian da III. Errepublikarako bidea egiteko errebindikazio-prozesu garrantzitsu bat.

Orain dela 82 urte, langileek klaseak, herri-sektoreek eta klase ertainek, kultura, zientzia eta unibertsitate munduko jendeak, alderdi politiko progresistek eta ezkerrekoek ahalbidetu zuten, udal hauteskundeak irabazita, konstituzio-prozesu demokratiko eta parte-hartzaile bat abian jartzea, eta horren ondorioz heldu zen II. Errepublika. Gaur, orduan bezala, errepublikazaleok udaletan eta autonomia erkidegoetan egoteak ahalbidetuko du Errepublikaren ametsa hurbilago egotea.

Era berean, Konstituzioaren erreformaren promesak ez du elite politikoaren arteko itun baten ondorio izan behar, 1978an gertatu zen bezala; aitzitik, gizarteak Estatu ereduari buruz duen iritzia eman ahal izateko balio behar du.

Errepublikazaleok –gu guztiok Justiziaren, Askatasunaren, Berdintasunaren eta Senidetasunaren ametsekin konprometitutako pertsonak eta II. Errepublikak utzitako ondare sozial, kultural eta emantzipatzailearen ondorengoak garen aldetik–gure arbuiorik sendoena adierazten dugu 1978ko Konstituzioak Francoren diktaduraren ondorengo zuzena den monarkia bat herritarrei inposatu zien moduaren aurrean.

Egungo monarkia parlamentarioak ez ditu jasotzen guk defendatzen ditugun idealak. Elite politikoaren arteko itun batetik datorrenez, oso lotuta dago politika neoliberalak ezartzearekin, zeinen emaitza izan baita langileen lan-, hezkuntza- eta ekonomia-prekarietatean bizi den gizarte bat. Neoliberalismoa demokraziaren ukazioa da, printzipio errepublikano guzti-guztien aurka doa, eta langileek ordaintzea nahi den krisi honen sorburuan dago. Hori dela-eta, elkartasun sozialarekiko eta demokrazia parte-hartzailearekiko konpromiso bat eskatzen dugu, gure nortasun errepublikanoaren ardatz eta ezaugarri gisa.

Gure ustez, eskubide eta askatasun demokratikoen defentsa eginen bada, esparru politiko errepublikar bat ezarri beharra dago, ezinbesteko tresna delako gure Estatu osatzen duten herrien eta nazioen autogobernu edo autodeterminazio eskubidea ziurtatzeko, eta eskubide sozialak egiaz garatzeari kapitalismoaren joko arauak ezarritako mugak gainditzeko tresna ere badelako. Gure errebindikazioak ondoko puntuetan laburbiltzen dira:

– Askatasunen eta demokrazia parte-hartzailearen alde.

– Lan eta soldata duinak, egonkorak eta esku-bideak aitortuta. Lana, produktiboa nahiz erreproduktiboa, denen artean banatzea.

– Beste politika ekonomiko baten alde, espekulazioaren eta ustelkeriaren aurka, etxebizitza eskuragarria denentzat.

– Kalitatezko zerbitzu publikoen eta kalitatezko osasun zerbitzuen alde. Hezkuntza publikoa, laikoa, berdintasunezkoa eta kalitatezkoa.

– Internazionalismo solidarioaren alde, gerraren aurka eta bakearen alde.

– Egiatzko berdintasuna denentzat.

Estrategia bateratu bat bultzatzen dugu, konstituzio-prozesu bat irekitzeko. Mugimendu zibiko eta politiko baterakor eta bateratu hau antolakuntza-maila guztietan abiarazteko eta garatzeko deia egiten dugu, errepublika-sistema bat lortzeko hazi gisa, ondokoak oinarri:

1) Giza eskubideak –zibilak, politikoak, sozialak eta ingurumen arlokoak– aitortzetik abiatuta egituratuz.

2) Demokrazia, errotikoa eta parte-hartzailea.

3) 1931ko Errepublikar Konstituzioko seigarren artikulua bake politika bat defendatzeko zeukan balio historiko, etiko eta politiko erraldoia berreskuratu nahi dugu: “Espainiak uko egiten dio gerrari, politika nazionalerako tresna gisa”. Errepublikar proposamenak bat egiten du munduko herrien aurka gerra-erasoaren kontra dagoen aldarri sakonarekin. Hortaz, berriro ere salatzen dugu Espainia NATOko kide izatea edo Estatu Batuekin aldeko akordioak edukitzea base militarrek “batera” erabiltzeko.

4) Humanismo laikoaren balioetan oinarritutako estatu-eredua, kontzientzia-askatasun osoaren printzipioa oinarri. Vatikanoko Hiria Estatuarekiko akordioak indargabetzea, eta eskola publikoak erlijio-doktrinazetik askatzea.

5) Austeritatearen balioa; alegia, baliabide publikoak zorrotasunez eta arrazoizkotasunez erabiltzea. Gizartearen beharrianak eta aurrekon-

tu-ekarpenak eta azpiegituren arloko beharrianak bat etortzea.

6) Egoera politikoak erakusten du Estatu federal errepublikano eta solidario bat eraiki beharra dagoela, “autonomien Espainia” izenekoa gainditzeko. Estatu federal horri libreki atxiki ahalko zaizkio Espainiako Estatuak gaur egun osatzen duten erregioak eta nazioak, autodeterminazio eskubi-dea aitortuta.

7) Hirugarren Errepublika eraiki nahi dugu, Europa federal baten esparruan, European benetako prozesu konstituziogile bat sustatuta.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. II. Errepublikarako bidea egiteko prozesu konstituziogile bat bultzatzea, Espainiako Konstituzioko 166. artikulutik 169.era bitartekoetan aurreikusitako tresna demokratiko eta baketsu guztiak baliatuta.

2. Egungo estatu-eredua agortuta dagoela deklaratzeko, eta herritarrei dei egitea Konstituzioaren erreforma eta erreferendum bat eska ditzaten, herritarrak izate aldera demokratikoki eta espresuki erabakiko dutenak zer estatu-eredu nahi duten Espainiako Estaturako.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Foru parlamentariak: Juan Carlos Longás García, José Miguel Nuin Moreno eta Patxi Leuza García

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu Bigarren Errepublikak funtsezko aldaketa ekarri zuela Espainiako bizitza politikoan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Bigarren Errepublikak funtsezko aldaketa kualitatiboa ekarri zuela Espainiako bizitza politikoan, mendealdeko demokrazien bereizgarri ziren balio etiko, politiko eta sozialak ekarri zituelako. Balio horiek aldarrikatzen jarraitu behar dugu ziurgabetasun eta zailtasun bereziko une hauetan.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du guttiz indarrean segitzen dutela berdintasun, askatasun eta elkartasun printzipioek –errepublikar proposamen ideologiko askoren ezaugarri komun

direnek–, eta gogora ekarri beharrekoak izateaz gain, mantendu, gaurkotu eta bultzatu beharreko ondare ere badirela.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du, xede horrekin sortutako lan-taldean aho batez erabakitakoaren ildotik, Errepublikaren legeak defendatzeagatik eraildakoen edo errepresaliatuen memoria ohoratu beharra dagoela, eta adierazten du bere asmoa dela aurrerabidea egiten jarraitzea, senitartekoekin eta elkarrekin batera, biktimei bidezko erreparazioa emateko eta prozesua arian-arian ixteko”

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuteratik Tarazonara doan N-121-C errepidearen eta Murchanterako sarbide NA-6840 errepidearen arteko lotunea egiteko aurreikusitako kronogramari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Tuteratik Tarazonara doan N-121-C errepidearen eta Murchanterako sarbide NA-6840 errepidearen arteko lotunea egiteko aurreikusitako kronogramari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Sustapen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapeneko Batzordean ahoz erantzun dakion.

Gaurko datarekin argitaratu da NAOen NA-6840 Murchanteko sarbidearen eta Tuter-Tarazona N-121C errepidearen arteko lotunea eraikitzeke proiektuaren behin betiko onespina, zeinaren arabera biribilgune bat eraikiko baita egungo errepidearen azpian, eta kendu egingen baita egun dagoen biribilgune zatitua, horrenbeste istripu eragin duena.

Hori dela-eta, Sustapeneko kontseilari Zarraluqui jaunari galdetu nahi diogu ea zein den obra horretarako aurreikusitako kronograma.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, Altsasu eta Sakanako Mankomunitatea eta 16. ustiapen-batzarraren hegoaldea urez hornitzen dituen uraren gaineko eskubideak defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

M.^a CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, Altsasu eta Sakanako Mankomunitatea eta 16. ustiapen-batzarraren hegoaldea urez hornitzen dituen uraren gaineko eskubideak defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Mari Carmen Ochoa andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Uraren Euskal Agentziak hidrologia plan baterako proiektu bat prestatu du 2011n, zeinetan hainbat jarduketa sartzen baitira, 16. zenbakiko ustiapen batzarretik Arga, Ega eta Irati arroetako ura lekualdatzea dakartenak.

Plangintza horren bidez, Ebroko plan hidrologiko berriaren bidez estatuak helarazitako ur-eskubideak lortu nahi ditu EAEk, ur-lekualdatze bat egin da Urdalurko urtegitik eta Araiaren sorburutik 17. zenbakiko ustiapen batzarrera.

Emakida hori, zeina mugagabea baita, Nafarroako, Errioxako eta Arabako lurraldeen kalterako da, ezin izanen dituztelako baliabide horiek erabili, Ebro ibaiaren bulkada handiak gertatu ezean.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu Altsasu eta Sakanako Mankomunitatea eta 16. ustiapen-batzarraren hegoaldea, non Mendabia eta Viana bezalako hiri garrantzitsuak baitaude, hornitzen dituen uraren gaineko eskubideak defendatze aldera?

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: María Carmen Ochoa Canela

Galdera, jakitekoa zein den Gizarte Politiketako Departamentuaren jarrera Ezgaitasunak dituzten Pertsonen “Erronkari Ibarra” Zentroaren kudeaketari dagokionez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko epaiaren ondorioz.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein den Gizarte Politiketako Departamentuaren jarrera Ezgaitasunak dituzten Pertsonen “Erronkari Ibarra” Zentroaren kudeaketari dagokionez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko epaiaren ondorioz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Gizarte Politiketako kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Jakin denez, Nafarroako Auzitegi Nagusiak ezgaitasunak dituzten pertsonen “Erronkariko Ibarra” zentroaren kudeaketa lizitzatzeko lehiaketari buruz emandako epai irmoak Nafarroako Gobernu behartuko luke milioi bat inguru euro ordaintzera Avánvida enpresari, lortu gabeko irabazien-gatik; izan ere, eskaintza ekonomikorik onena proposatu omen zuen, eta mahaiak baztertu zuen “anormalki baxua” zela uste zuelako. Auzitegiak atzera bota du orain argudio hori.

Avánvida enpresako zuzendariak orobat ohartarazi du Gobernuak oraingo kontratua eten beharko lukeela, eta bere enpresari esleitu.

Hori horrela, hauxe gomendatzen dugu:

- Gizarte Politiketako Departamentuak zer jarrera hartuko du Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiari dagokionez?

- Nafarroako gizarte politikak, berez aurrekontu oso doitua dutenak, zertan aterako dira kaltetuta?

- Lehiaketetan zorroztasun handiagoz jardutea aurreikusten al da, halako egoerak berriro gerta ez daitezen?

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

Galdera, Espainiako Errege Akademiaren Fundazioarekin hartutako konpromiso ofizialei eta eginiko zorra ordaintzeari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Errege Akademiaren Fundazioarekin hartutako konpromiso ofizialei eta eginiko zorra ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noizko du asmoa Espainiako Errege Akademiaren Fundazioarekin hartutako konpromiso ofizialak betetzeko, eta noiz ordainduko du hartutako zorra?

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, enpresa publikoek beren langileria gastua % 5 murrizteko betebeharrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, enpresa publikoek beren langileria gastua % 5 murrizteko betebeharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa Korporazio Publikoa sortu zenetik:

1. Egia al da betebeharrak gisa ezarri zela enpresa publikoek % 5 murriztea beren langile-gastuak?

2. Baiezkoan, nola aplikatu da irizpide hori enpresa publiko bakoitzean?

3. Zer enpresatan jaitsi zaie soldata langile guztiei?

4. Zer enpresatan ez zaio jaitsi soldata inori?

5. Demandarik eta epairik egon al da?

6. Zer enpresatan jaitsi zaio soldata pertsonaren bati baina ez denei?

7. Demandarik eta epairik egon al da?

8. Enpresaren batean igo al zaio soldata inori aldi horretan? Zeinetan, zenbat eta zenbati?

9. Denetan bete al da langile-gastuak % 5 murrizteko helburua?

10. Iraizpenen bat egin al da helburua lortzeko?

Iruñean, 2013ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa Nafarroan 39 enpresa publiko ote zeuden eta gaur egun horietatik 13 bakarrik geratzen diren, eta zeintzuk ziren enpresa horien 39 kudeatzaileen eginkizunak.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroan 39 enpresa publiko ote zeuden eta gaur egun horietatik 13 bakarrik geratzen diren, eta zeintzuk ziren enpresa horien 39 kudeatzaileen eginkizunak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa publikoei dagokienez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Nafarroan 39 enpresa publiko zeuden eta orain 13 bakarrik daude?

2. Zer eginkizun dituzte gaur egun enpresa horietako 39 kudeatzaileek?

3. Horietako zenbatek mantentzen du bere lanpostua enpresa publikoren batean?

Iruñean, 2013ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra”ko kudeatzailetzari enplegu-erregulazioko espedientearen ondotik dagokion lansari-murrizketa proportzionalari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra”ko kudeatzailetzari enplegu-erregulazioko espedientearen ondotik dagokion lansari-murrizketa proportzionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Enplegu-erregulazioko espediente bat onetsi da berrikitan Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroan, plantillaren ia % 50 iraitzita. Jarduera jaitsi denez, kudeatzailearen soldata proportzio berean jaitsi al da?

Iruñean, 2013ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, enpresa publikoek Nafarroan duten etorkizunari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, enpresa publikoek Nafarroan duten etorkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako enpresa publikoen etorkizunari dagokionez,

1. aurreikusita al dago plantilla murriztea, kon-tuan hartuta enpresa kopurua murrizteko erabakia jada hartuta dagoela?

2. zer aurreikuspen dago xurgatutako enpresen kudeatzaileentzat?

3. zuzendari postu berriak sortuko al dira?

Iruñean, 2013ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

